



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### KONTSULTA PUBLIKOAREN IRAGARKIA

Administrazio Publikoetako Prozedura Administratibo Arruntari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, arauak egiteko prozeduran herritarren parte-hartzea hobetzeko helburuarekin, **EGUNEKO ARRETA-ZERBITZUAREN ARAUTEGIA**ren proiektua egin aurretik, pertsona eta erakunde adierazgarrienen iritzia jasotzen da, hauei etorkizuneko araudiak eragin baitiezaieke:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Horiek onartzeko beharra eta aukera.
- c) Araudiaren helburuak.
- d) Konponbide arautzaile eta ez arautzaile posibleak.

Hala nahi duten herritar, erakunde eta elkarteek beren iritzia helaraz ditzakete galdetegi honetan adierazitako alderdien inguruan.

Iradokizunak 2019ko urtarrilaren 17a arte aurkeztu daitezke Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Arruntaren 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako moduetako edozeinetan, edo helbide elektronikoko honetara bidaliz: [idazkaria@astigarraga.eus](mailto:idazkaria@astigarraga.eus).

<b>Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak</b>	Zerbitzuaren onuradunen ( <i>65 urteko edo hortik gorako herritarrak, eta betiere I. mailako arrisku- edo dependentzia-egoera bat aitortuta dutenak</i> ) esku jartzea dispositibo bat, non –egunez bertara jotzen dutenean– beren arreta-premia espezifikoei lotutako intentsitate txikiko babesa eskainiko zaien, beren autonomia atxiki dezaten, eta beren ohiko bizi-ingurunean jarraitzeko eta sozializatzeko bultzada jaso dezaten, betiere isolamendu-egoerak konpentsatuta, kasuan kasu.
<b>Onartzeko beharra eta aukera</b>	12/2008 Legeak, bere 22.1 artikuluan eta 42.4 artikuluari dagokionez, eguneko arreta-zerbitzuak ematea Euskal Autonomia Erkidegoko udalen eskumena dela ezartzen du. Eta 185/2015 Dekretuaren I A) eranskinean, udal-eskumeneko zerbitzu gisa definitzen da eguneko arreta-zerbitzua, bi mota bereizita, mota horietako bat dependentzia-arriskuko egoera bat ( <i>hau da, 23 edo 24 puntu lortu izana Dependentziaren Balorazio Baremoan</i> ) edo



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.eus

	<p>Dependentziaren Balorazio Baremoan 25-39 puntuko puntuazioarekin I. mailako dependentzia bat ofizialki aitortuta duten 65 urteko edo gehiagoko pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua.</p> <p>Astigarragako Udalak, abenduaren 20an egindako udal osoko bilkuran, erabaki du 2019ko urtarriletik aurrera EGUNEKO ARRETA-ZERBITZUA eskaintzea 65 urte edo gehiago dituzten eta mendetasun-arriskuan edo I. Graduko mendetasun-egoeran dauden herritarrei.</p>
<b>Arauaren helburuak</b>	65 urte edo gehiago dituzten eta mendetasun-arriskuan edo I. Graduko mendetasun-egoeran dauden herritarrei eskainiko zaien EGUNEKO ARRETA-ZERBITZUA arautuko duen erregelamendu bat onartzea.
<b>Konponbide arautzaile eta ez arautzaile alternatibo posibleak</b>	Araudiak barneratu eta zehaztuko ditu zerbitzurako sarbide-baldintzak, prozedurak eta kudeaketa egokirako kontutan hartu behar diren gai guztiak, zerbitzua emateko bere onarpena ezinbestekoa izanik.